

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Aipatutako helburuetara egokitzen diren pertsonak ala bezeroak erakartzeko lehenengo modua, eskaintzen dugun produktuaren prezio bera da. Azken hiru urte hauetan, produktu guztien prezioak izugarri handitu egin dira, baita elektrizitatearena ere, baliabide gutxi dauzkaten familiek aurrera jarraitzeko arazo ugari izatea eragin duena. Hori dela eta, pertsonen beste multinazionalen prezioekin alderatuz, gurea nabari txikiagoa da, energia hondakinetatik ateratzerakoan produkzio kosteak baxuagoak baitira. Beraz, pertsona hauek diru kopuru bat aurrezteko, gure eskaintza besteak baino askoz erakargarriagoa bihurtzen da, hauek hau aukeratzeko probabilitateak handituz.

Bezeroekin harremanetan jartzeko, web orrialdea eta sare sozialen bidez egingo dugu. Gure web-orrian, bezeroek haien galderak zein proposamenak adierazteko gune bat egongo da. Horrela, hauen arazoa eta kezka konpontzeko aukera izango dugu, beren beharrak eta nahiak asetzen lagunduko gaituena. Gainera, sare sozialen bitartez gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, baita gure gmail eta telefono-zenbakiaren bidez ere, aurreko bi plataformetan adierazita egongo direnak.

Azkenik, bezero berriak erakartzeko eta daudenak mantentzeko, hiruhileko bakoitzeko gure enpresaren funtzionamendua eta aurrerapenak azaltzen dituzten hizketaldiak emango ditugu Bilbon, Bartzelonan eta Madrilen. Hauetan, bi ideia nagusi jorratuko ditugu: gure jarduerak ekosistemetan eragiten dituzten onurak aurkeztuko ditugu, hauekin haien haurrentzat etorkizun hobeto bat eraikiko dugula defendatuz; eta, LIBERA elkartearekin batera egindako aurrerapenak eta ekintza guztien berri emango diegu bezeroei, bai hartutako hondakin kopurua, bai hauekin ekoiztutako energia kopurua.

Aipatutakoagatik, jendeak gure enpresa aukeratu du beren etxeetako eta lokalen elektrizitatea lortzeko, ekosistemen hobekuntza bermatzeaz aparte, bezeroen beharrak asetzen saiatzen baikara.

